



ORDUTEGIA ALDATZEKO /TALDEZ ALDATZEKO ESKARIEI BURUZKO ARAUTEGIA - UPV/EHUko ARTE EDERREN FAKULTATEA

Arautegi honen bidez ordutegia aldatzeko/taldez aldatzeko eskariak arautu nahi dira. UPV/EHUren lehenengo eta bigarren zikloko eta graduiko ikasketen gestiorako arautegian, 25.3 artikuluan, honako dio ikasleen banaketaz nahitaezko irakasgaien taldeetan:

Maila edo talde jakin batean matrikulatu ondoren, ikasleak taldez aldatzeko eskaera egin ahal izango du irakasgai jakin batzuetarako, hizkuntzaz aldatzeko hain zuzen ere. Eskabideok ikastegiko zuzendariak edo dekanook ebatziko ditu, eskura diren baliabideak oinarri hartuta.

Horixe denez gestio arautegian jasotako egoera bakarra, Arte Ederren Fakultateak, kontuan hartuta zenbait egoera, ordutegia aldatzeko/taldez aldatzeko eskariak aztertuko ditu honako egoeretan:

1. Eskariaren arrazoia ikasketak eta lana bateragarri egitea denean. Behar bezala arrazoitu beharko da laneko kontratua aurkeztuta. Agiri hori izango da eskaria arrazoitzeko bide bakarra; ez da kontuan hartuko bestelako "agiri ez ofizialik".
2. Errendimendu handiko kirolari izatea; UPV/EHUko Kirol Zerbitzuaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.
3. Eskariak onartuko dira, baldin eta ikasleen arteko permuta egiteko aukera badago.
4. Ez da onartuko, inolaz ere, hautazko irakasgaietan ordutegia aldatzeko/taldez aldatzeko eskaririk, baldin eta eskariaren oinarria ikasleak egindako akatsa bada edo aurreikuspen falta Ikasleak libre dira irakasgaiak aukeratzeko, eta, beraz, beren erantzukizuna da irakasgaia aukeratu aurretik jakitea zein den irakasgai bakoitzaren ordutegia, eta zuzen ez aukeratzeak izan ditzakeen ondorioak.

Ordutegia aldatzeko/taldez aldatzeko eskariak egiteko epea ikasturte bakoitzean erabakiko du idazkaritzak.

Arautegi hau Ikastegiko Batzarrak onartu zuen 2015eko uztailaren 2an.